

E K O N O M I E T A S I N D I K A L

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

78 2001 APIRILA

- ✓ HAZKUNDE EKONOMIKOAREN TASA MANTENTZEN DA
- ✓ TXIROTASUN LARRIA GEHITZEN DA HAZKUNDE EKONOMIKOAREN GARAIAN
- ✓ SORTUTAKO LANPOSTU GEHIENAK, GIZONEZKOENTZAT
- ✓ IRABAZIEN PISUA GEHITZEN DA ETA PERTSONALAREN GASTUA GUTXITZEN DA


**AZTERKETA BEREZIA:
LAN ERREFORMA:
DESARAUKETA
AREAGOTZEN**



ELAko Bulego
Teknikoak egina

Hego Euskal Herriko (*) egoera ekonomikoaren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	DATA	DATUA	AURREKO DATUA	AZKEN HILEETAKO JOERA
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA					
JARDUERA TASA	%	2000.ko Abendua	53,07	55,43	GUTXITZEA
LANEAN ARI DIREN BIZTANLEAK	KOPURUA	2000.ko Abendua	1.055.400	1.033.400	HAZKUNDEA
ALOKAIRUPEKO BIZTANLEAK	KOPURUA	2000.ko Abendua	835.800	821.200	HAZKUNDEA
ALDIBATERAKO KONTRATUEN TASA	%	2000.ko Abendua	32,11	-	-
LANIK GABEKO POPULAZIOA	KOPURUA	2000.ko Abendua	131.090	161.000	GUTXITZEA
LANGABEZI TASA	%	2000.ko Abendua	11,11	13,48	GUTXITZEA
LANGABEZIA 25>KOEN ARTEAN	%	2000.ko Abendua	25,26	28,74	GUTXITZEA
LANGABEZIA EMAKUMEEN ARTEAN	%	2000.ko Abendua	16,94	24,4	GUTXITZEA
BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA EAEn	%	2000.ko Abendua	36,0	19,99	GUTXITZEA
EGINIKO KONTRATUAK	KOPURUA	2000	867.996	-	
DENBORA PARTZIALEKO KONTRATUAK	KOPURUA	2000	181.612	-	
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO ESPEDIENTEAK	KOPURUA	2000	344	369	BERDINDUA
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	2000	10.168	13.293	GUTXITZEA
LAN ISTRIPUAK					
BAJA DAKARTEN ISTRIPUAK	KOPURUA	2000	70.632	64.895	HAZKUNDEA
ISTRIPU LARRIAK ETA HILGARRIAK	KOPURUA	2000	907	1.012	GUTXITZEA
ESKAITZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALDAKETA	2000	5,5	2,3	HAZKUNDEA
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAN	% ALDAKETA	00. URT-AZA	12,9	-	-
PRODUKZIO AHALMENAREN ERABILERA EAEn	%	2000	80,3	78,8	HAZKUNDEA
BPGaren HAZKUNDEA ESTATUAN	%	2000	4,1	4	GUTXITZEA
BPGaren HAZKUNDEA EAEn	%	2000	4,3	4,3	BERDINDUA
BEGa NAFARROAN	%	2000	4,3	3,9	HAZKUNDEA
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPI ESTATUAN	%	2000.ko ABENDUA	4	2,9	HAZKUNDEA
NAZIOARTEKO EKONOMIA					
LANGABEZIA OCDEn	%	00.KO ABENDUA	6,4	6,7	GUTXITZEA
LANGABEZIA EUROPAR BATASUNEAN	%	00.KO ABENDUA	8,1	8,9	BERDINDUA
BPGa EUROPAR BATASUNEAN	%	2000	3,3	2,5	HAZKUNDEA
KPIa EUROPAR BATASUNEAN	%	00.KO ABENDUA	2,3	1,7	HAZKUNDEA
*Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan, kasuan-kasuko lurraldea zehaztuko da					



Aurkibidea

SARRERA.....3

EGOERA EKONOMIKOARI

BURUZKO IRUZKINAK.....4

1. Hazkunde ekonomikoa mantendu egin da
2. Enpleguaren bilakaera
3. Langabeziaren bilakaera
4. KPlaren igoera.

HIL HONETAKO PUNTAKO GAIAK7

1. Irabazien pisua gehitzen da eta pertsonalaren gastua gutxitzen da
2. Txirotasun larria gehitzen ari da hazkunde ekonomikoaren garaian
3. Gastu soziala murriztu egiten da Espainian, Europar Batasunetik urrutiratuz

AZTERKETA BEREZIA:

LAN ERREFORMA.....9

A) Erreformaren edukiak

1. Lanaldi partzialeko kontratuaren malguagotzea
2. Kontratazio mugagabea sustatzeko kontratua sinatu ahal dutenen langile multzoak ugaltzea
3. Hemendik aurrera sinatzen diren zenbait aldi baterako kontratuak iraungitzeagatik kalte-ordaina ezartzen da
4. Behin-behineko kontratua malgotu egiten da
5. Prestakuntzarako kontratua sinatu ahal izateko adin-mugarentzako salbuespenak ugaltzea
6. Aldi baterako kontratu mota berri bat ezartzen da herri administrazioan: txertaketa kontratua
7. Enpresa nagusiaren erantzukizuna azpikontratazioko kasuetan eta informazioko eskubideak azpikontratazioko kasuetan
8. Kaleratze objektiborako arrazoi berri bat ezartzen da
9. Indargabetu egiten da lan egiteko gehieneko adin-mugari buruzko arau atala
10. Hobariak ugaltzea egiten zaizkie enpresei

B) Erreformaren balorapena

E K O N O M I E T A S I N D I K A L

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoera Ekonomiko eta Sindikalaren azterketa honetan, 2000 urtean zehar gertatutakoaren balantze bat egiten saiatu gara. Hazkunde ekonomikoa, enplegua bera eta prezioak, nagusiki, aztertu ditugu.

“Hil honetako puntako gaiak” izeneko atalean, hauek dira aukeratutakoak: enpresa etekin eta pertsonal gastuen bilakaera ezberdina; estatu espainiarreko gastu sozialaren defizita eta Euskal Herriak pairatzen duen txirotasun larriko egoeren hazkundera.

Egoera ekonomikoari buruzko iruzkinak

laz, zazpigarren urtez jarraian, hazkunde ekonomikoaren aldiak jarraipena izan zuen. Euskal Herrian, BPGa, hau da, sortzen den aberastasuna, %4,3an igo zen kopuru errealetan (prezioen igoera gehitu beharko litzateke, beraz). Eustatek aurkezturiko datuek BPGaren %4,3ko igoera erakusten digute EAEn, Nafarroako gobernuak Balio Erantsi Gordina (BEG) ere %4,3an igo zela estimatzen duelarik.

1. Hazkunde ekonomikoa mantendu egiten da

Honela, 2000 urteko hazkundera aurreko ekitaldian izandakoaren berdina izan zen EAEn, Nafarroan 4 hamarren haundiagoa izan zelarik (%3,9 1999.ean).

HAZKUNDE EKONOMIKOA EUSKAL HERRIAN					
1996-2000					
	1996	1997	1998	1999	2000
EAEko BPGa	%2,5	%4,4	%6	%4,3	%4,3
NAFARROAKO BEGa	%2,7	%3,8	%4,9	%3,9	%4,3

Iturriak: Eustat eta Nafarroako Gobernua.

Euskal hazkunde ekonomikoa gure inguru ekonomikokoa baino haundiagoa izan zen joan zen ekitaldian. Zehazki, Europako Batasuneko 15 estatuen BPGa %3,3 hazi zen 2000.ean, goranzko joerarekin, 1999.ean aberastasunaren igoera %2,5ekoa izan baitzen kopuru errealetan.

Bai Nafarroan eta bai EAEn, industria izan zen hazkunderik haundieneko sektorea, eraikuntza eta zerbitzuen sektoreen aurretik, EAEn sektoreon arteko distantzia Nafarroan baino txikiagoa izan zelarik. Honela, EAEn industria %4,8a igo zen, eraikuntza %4,2 eta zerbitzuak %4,1. Bere aldetik, Nafarroan industria %5,4 igo zen, eraikuntza %4,9 eta zerbitzuak %3,8.

Eskariari dagokionez, EAEn gertaturikoa soilik azter dezakegu. Joan zen urtean kontsumo eta inbertsioaren igoeraren astirotea eman zen.

Kontsumoa %2,7 igo zen, 1999.ean baino puntu bat gutxiago. Inbertsioaren igoera, %4,4koa, aurreko urtekoa baino hiru hamarren txikiagoa izan zen, azken krisialditik apalena.

Kontsumo eta inbertsioaren bilakaeraren ondorioz, barne eskaria %3,1 igo zen, 1999.ean baino zortzi dezima gutxiago. Alde hau eman arren, BPGa aurreko urtean beste igo zen, kanpo sektorearen jokaera hobea medio. Beste era batera esanda, 2000.eko hazkundera 1999.ekoaren berdina izan zen, baina kontsumo eta inbertsio gutxiago hazi ziren eta kanpo merkataritzaren saldoa hobea izan zen.

Ditugun sektorekako indizeak industriaren egoeran oinarritzen dira, eta aurrean aipaturikoa sendotzera datoz. EAEko Produkzio Industrialaren Indizea (PII) %5,5 hazi zen pasa den urtean, 1999.ean lortutako %2,3a gaindituz. Nafarroako Industri Jardueraren Indizea (IJI) %12,9 hazi zen 2000.eko urtarriletik azarora.


Era berean, EAE-ko produkzio ahalmenaren erabilpena haundiagoa izan zen iaz aurreko urtean baino. Indize hau %80,3ra iritsi zen 2000.ean, 1999.ean %78,8koa izan zelarik.

2. Enpleguaren bilakaera

Enpleguaren egoera eta bilakaera aztertzeraz igaroz, jarduera tasaren jeitsiera da lehen gauza azpimarragarria. 2000.eko abenduan jarduera tasa %53,07koa zen Euskal Herrian, bi puntu baino gehiagoren jaitsierarekin 1999.eko abenduarekiko.

Jarduera tasaren jeitsiera honek biztanleria aktiboa 7.000 pertsonatan jaitea ekarri du. Hau bereziki azpimarragarria da arrazoi bi direla-eta:

- Gure jarduera tasa EB-eko batazbestekoa- ren azpitik kokatzen da.
- Normalena, hedaldi batetan jarduera tasa haunditzea da.



2000.ean enpleguak sortzen jarraitu zuen. Hala ere, hazkunde ekonomiko haundiak ez du berdinki eragin lan merkatuan. Abenduan 1.055.400 pertsona zeuden lanean Euskal Herrian, 1999.eko abenduan baino 22.000 gehiago (%2,13a). Hau da, enplegua BPGaren erdia igo zen.

ALDAGAI ESANGURATSUAK EUSKAL HERRIAN. 2000. URTEA

BPG	ENPLEGUA	PRODUKTIBITATEA	EROSTEKO AHALMENA
%4,3	%2,13	%2,17	%0,6

Iturriak: Eustat, Nafarroako gobernua eta ELA-ko bulego teknikoa.

Beraz, produktibitatea %2,17 igo zen 2000.ean. Produktibitatearen igoera honen zati handiena enpresa eta kapital errentetara joan zen, iaz izandako erosteko ahalmenaren igoerak ez baitzuen %0,6a gainditu (produktibitate igoeraren laurdena inguru).

Enpleguaren bilakaera ezberdina izan da gizon eta emakumeen artean. Lanean zeuden gizonen kopurua 21.100en hazi zen iaz, lanean zeuden emakumeen kopurua soilik 800en igo zen bitartean. Enplegu igoeraren ia osotasun guztiak gizonak onuratu zituen, beraz. Era honetara, lanean dauden 100 pertsona bakoitzeko, 63,2 gizonezkoak dira, emakumeak 36,8 soilik diren bitartean.

Enpleguaren sektorekako azterketa bat burutzen badugu, zerbitzu sektorean lanean dauden pertsona guztien %57,76a aurkitzen dela ikusten dugu. Industriak jarraitzen dio, %30,12arekin, gero eraikuntzak %9,01arekin, eta %3,11a lehen sektorean aurkitzen da. Enpleguaren hazkunde-rik haundiena industrian eman zen iaz, 22.000 lanpostu berrietatik 15.100 beronek eskuratu zituelarik. Zerbitzu sektoreak eta eraikuntzak lanean zeuden pertsonen 5.200 eta 3.900eko igoera izan zuten hurrenez hurren, bere lan bolumena 2.300 pertsonatan jaistean, nekazal sektoreak bere beheranzko joerarekin jarraitu zuen bitartean.

1999 bukaeran 821.200dik urtebete beranduago 835.800 izatera igaro ziren alokairupeko biztanleak Euskal Herrian, %1,78ko igoerarekin (14.600 pertsona).

Alokairupeko biztanleriaren %33,44a mugagabeko kontraturik gabe zegoen EAEn joan zen abenduan (alokairupeko pertsonetatik %29,48a behin-behineko kontratuarekin zegoen, %4a inolako kontraturik gabe lanean zegoen bitartean). 2000.ean, mugagabeko kontratudun alokairupeko biztanlegoaren portzentaia igo egin zen EAEn, %66,56a lortzera helduz, 1999.eko %62,91ekiko.

ALOKAIRUPEKO BIZTANLEGO FINKOA / ALOKAIRUPEKO BIZTANLEGOA (%) EAE. 1993-2000

1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000
73,18	69,61	67,2	64,8	63,7	65,3	64,1	66,6

Iturria: Eustat, urteko batzbestekoak.

867.996 lan kontratu erregistratu ziren iaz INEM-eko bulegoetan Euskal Herrian. Kopuru hau, alokairupeko pertsona guztiena baino haundiagoa da lehen aldiz; honek lan merkatuan ematen den lan txandakatze haundia erakusten du.

Behin-behineko kontratazioarekin batera, prekaritatean igotzen ari den beste formuletariko bat lanaldi partzialeko kontratazioa da (zenbaki hontan jasotzen den erreforma laboralaren azterketa ikusi). 2000.ean 181.612 lanaldi partzialeko kontratu erregistratu ziren, eta honek, erregistraturiko kontratuen %20,92a lanaldi partzialekoak direla esan nahi du (bost kontratuko bat).

3. Langabeziaren bilakaera

Abenduan 131.900 pertsona zeuden langabezia Euskal Herrian, honek %11,11ko langabezi tasa suposatzen duelarik (%12,4koa EAEan eta %5,75ekoa Nafarroan). Joan den urtean langabezi tasa 2,37 puntutan jaitsi da; jaitsiera hau, alde batetik, enpleguaren sorkuntzaren ondorio da, eta beste alde batetik, biztanleria aktiboaren jeitsieraren ondorio.

Azken urteetan langabezi tasa asko jaitsi den arren Euskal Herrian, gure langabezi tasak Europako Batasuneko %8,1ko batzbesteko langabezi tasa gainditzen du, edo baita OCDE-ko %6,4ko batzbestekoa ere.

Dena den, azpimarratu beharra dago langabeziak bereziki handia izaten jarraitzen duela talde bitan, hain zuzen, 25 urte baino gutxiagoko pertsonetan (%25,26ko langabezi tasarekin) eta emakumeetan (%16,94ko langabezi tasarekin).


Aipaturiko kolektibo bietan da EBko langabeziarekin ezberdintasunik haundienak ematen diren talde biak. 25 urtetik beherakoen arteko langabezi tasa %16,7koa da EBan, euskal gazteen langabezi tasak, 8,5 puntutan gainditzen duelarik europarra. Emakumeen artean ezberdintasuna zerbait txikiagoa da, baina oso handia hala ere, EBeko %9,9ko batzbesteko langabezia, Euskal Herrikoa baino 7 puntu txikiagoa bait da.

4. KPIaren igoera

Azkenik, eta iazko urtean gertatutakoaren lehen balorazio honekin bukatzeko, prezioetan hazkunde bat egiaztatu da. Estatu espainiarrean KPIa %4koa izan zen, %1,1ean gaindituz 1999.ean prezioak igo ziren %2,9a.

Espainiar gobernua, KPIaren igoera hau petroleotik datozen produktuen prezioen igoera izugarria medio izan dela esaten aritu da, petroleoaren prezio internazionala igo dela eta. Arrazoi hau ez da onargarria, orduan ez bailitzake azalduko 2.000.ean Europako Batasunean KPIa estatu espainiarrean baino nahiko gutxiago igotzea (%2,3); ez litzateke ere azalduko KPIaren hazkundera 2000.ean 1999.aren 1,1 puntukoa izatea estatu espainiarrean, EBeko %0,6arekin konparatuz. Gure ustez, irabazien hazkunde handia bezalako beste arrazoi batzuk izan dira prezioen aipaturiko joeraren oinarri, hauexek izan direlarik inflazioaren arrazoirik nagusienak azken urteetan.





1

Irabazien pisua gehitzen da eta pertsonalaren gastua gutxitzen da

SABEk (enpresek merkataritza erregistroan ematen duten informazioa jasotzen duen iturria) emandako datuen arabera, Euskal Herriko enpresen irabaziak, beraien lan kostuen igoera baino askoz gehiago igotzen ari dira.

1996.etik 1999.era (informazioa dagoeneko azken urtea), Nafarroa eta EAEko enpresen irabazi gordinak (zergak ordaindu orduko) %139 haunditu dira, hau da, 2,4 bider hazi dira. Bien bitartean, epealdi berdin hortan, enpresa horien pertsonal gastu totalak %21 igo dira. Hau da, euskal enpresen irabaziak, pertsonal kostuak igo direna baino 6,6 aldiz gehiago igo dira.

1996.ean, Euskal Herriko enpresen salmentatik 100 peseta bakoitzeko 16,33 pertsonal gastueta-
ra zuzenduta zeuden (alokairuak, kotizazio sozialak, kaleratzeengatik emandako kalteordainak, etab.). Pertsonal gastuen pisua jeitsi egin da enpresen salmenten totalarekiko, 1999.ean, pertsonal gastuok, fakturazio bolumenaren %14,73a osatzen baitzuten.

Alderantziz, irabazi gordinen pisua salmenten totalarekiko asko igo da, 1996.ean %3,15a izate-
tik, 1999.ean %5,62a izatera igaro baitira.

PERTSONAL GASTUAK ETA IRABAZI GORDINAK SALMENTEKIKO. EUSKAL HERRIA. 1996-1999

	1996	1997	1998	1999
PERTSONAL GASTUAK/ SALMENTAK	16,33	15,21	14,88	14,73
IRABAZI GORDINA / SALMENTAK	3,15	4,90	5,12	5,62

Iturria: ELA-ko bulego teknikoa, SABE-n oinarrituz.

2

Txirotasun larria gehitzen ari da hazkunde ekonomikoaren garaian

Eusko Jaurlaritzak landutako Txirotasun eta Ezberdintasun Sozialen Inkestak, azken urteetan hedaldi sendoa bizi izan arren, txirotasun larrienen kopurua igo egin dela EAEan argitan jarri du.

Inkesta honen arabera, iazko urtean EAEko etxebizitzetako %71,2a ongizate egoeran zegoen bitartean, etxebizitzaren beste %28,8an (zeintzuetan ia 200.000 pertsona bizi diren) zituzten baliabideak ez ziren nahikoak gure gizartean espero diren ongizate eta erosotasun maila minimoak mantentzeko, oinarrizko beharrianetatik kanpo. Datuek, 1996.etik (aurreko inkesta egin zeneko data), ongizate egoerak igo egin direla erakusten digute, "ongizate eza" kontsideraturiko egoerak etxebizitzaren %31,6tik aipaturiko %28,8ra jaitsi direlarik.

Halere, ongizate igoera hau eman arren, beharrian eta txirotasun larrienerako egoerak ere gehitu egin dira. 2000. urtean beharrianik oinarrizkoen estaldurei aurre egiteko sarrera nahikorik ez zuten etxebizitzaren kopurua (elikadura, etxebizitzaren jantziak eta oinetakoak) 38.000koa zen bitartean, totalaren %5,5a, 1996.ean 31.000koa zen (etxebizitza guztien %4,6a).

Beraz, EAEan BPGa kopuru errealetan %17,2a igo den urte hauetan (1996tik 1999arteko hazkunde, urte bi hauek barne) ongizate egoeran bizi diren etxebizitzaren portzentaia %2,8 soilik igo da eta, batez ere, aberastasunaren igoera hori txirotasun larriaren gehikuntza batekin batera eman da.

Gobernuaren informearen beraren ondorioetan batzen denearen arabera, estaldura sozialen urritasuna eta sortutako enpleguaren kalitatearen okertzea dira txirotasun larriaren igoeran lagundu duten arrazoiak.

3

Espainian gastu soziala murriztu egiten da Europar Batasunetik urrutiratuz

Eurostat-ek (Europako Batzordeko estatistika institua) EBko estatu ezberdinen gastu sozialaren azterketa bat prestatu du. Azterketa honen arabera, zeinen erreferentzi azken urtea 1998.a den, estatu espainiarrak bere BPGaren %21,6a zuzentzen du gizarte babesera, EBko %27,7ko batzbestekoa baino 6,1 puntu gutxiago.

Espainiar estatuaren gizarte babeseko gastuak Irlandakoa soilik gaintzen du (bere BPGaren %16,1arekin) eta bere aurretik daudenetatik aski urrun geratzen da, Portugal (%23,4arekin) eta Luxenburgoko (%24,1arekin) alegia.


1993tik gastu soziala 3,1 puntu jaitsi da espainiar estatutan. Aipaturiko urte honetan, gastu hau BPGaren %24,7ra heltzen zen. Jaitsiera hau, EBko haundienetarikoa da, eta EBan emandakoaren batzbestekoa gaintzen du.

EBan gastu soziala BPGaren %28,9tik 1993an, %27,7ra igaro da 1998an. Beraz, espainiar estatu eta EBaren arteko distantzia gastu sozialean 1993an altua bazen (BPGaren 4,2 puntu), jaitsi beharrean gehitu egin da, 1998an 6,1 puntura heltzeraino.

Europako Batasunarekin bateratze politikak ez dira ari aplikatzen politika sozial arloan, langileentzat oinarriko eremuetariko bat.

GASTUA GIZARTE BABESEAN (BPGaren %tan). 1993-1998		
	1993	1998
IRLANDA	20,5	16,1
ESPAINIA	24,7	21,6
PORTUGAL	21,3	23,4
LUXENBURGO	24,5	24,1
GREZIA	22,3	24,5
ITALIA	26,2	25,2
ERRESUMA BATUA	29,1	26,8
FINLANDIA	34,6	27,2
BELGIKA	29,5	27,5
EB15	28,9	27,7
AUSTRIA	28,9	28,4
HOLANDA	33,5	28,5
ALEMANIA	28,4	29,3
DANIMARKA	31,9	30
FRANTZIA	30,9	30,5

Iturria: Eurostat



A) Erreformaren edukiak

Espainiar Gobernuak lan-erreforma bat onartu du Errege Dekretu-Lege baten bidez. Ezarri diren aldaketarik nabarmenenak honakoak dira:

1. Lanaldi partzialeko kontratuaren malguagotzea

a) %77ko topea ezabatzea

Orain arte, kontratua lanaldi partzialekoa izan ahal izateko, beharrezkoa zen kontratatutako orduak denbora osoko lanaldiaren % 77a ez gainditzea. Aurrerantzean, kontratua lanaldi partzialekoa izaten ahal da, noiz eta ez den iristen "denbora osoko langile ideko" baten % 100ra.

b) Ordu banaketa malgotu egiten da

Orain arte, kontratuan agertu behar zuen "egunean, hilean edo urtean kontratatutako lan ordu arrunten zenbatekoa, eta orduen banaketa eta hileroko, asteroko eta eguneroko zenbatekoaren zehaztapena, langileak zerbitzua eman beharreko egunak zehaztuaz baita ere".

Orain soilik esaten da kontratuan beharko duela agertu "kontratatutako lan ordu arrunten zenbatekoa egunean, astean, hilean edo urtean, eta bere banaketa".

c) Ordu osagarrien arauketa malgotu egiten da (denbora partzialeko kontratu mugagabeei eragiten die honek)

Orain arte, ordu osagarriei buruzko itunak urtebeteko iraunaldia zuen, legeak espreski agintzen zuenez, eta urtebeteko luzapenak zituen alderdi bietakoren batek salatzen ez zuen bitartean.

Orain, ez da adierazten inolako iraupen aldirik.

Ordu osagarrien zenbatekoaren muga, ordu arrunten %15koa, orain arte negoziazio kolektiboaren bidez %30raino igotzen ahal zena, orain %60raino igotzen ahal da.

Ordu arruntak eta osagarriak elkar hartuta gaintitu ezindako muga, denbora osoko lanaldiaren % 77koa, jaso egiten da orain, ezarritako muga berriraino (alegia, ez iristea denbora osoko langile "ideko" baten % 100ra).

Desagertu egiten da oraingoko arauketa, zeinaren arabera ordu gehigarriak ordu arrunten kopurua osatzera igarotzen ahal bai dira denbogarrenean.

Desagertu egiten da ordu gehigarriak hiruhileko epetan proportzionalki banatu beharreko baldintza, areagotu egiten delarik enpresariak orduok bere borondate soilaren arabera eragiteko ahalmena, aldez aurreko zazpi eguneko abisua beste gabe.

2. Kontratazio mugagabea sustatzeko kontratua sinatu ahal dutenen langile multzoak ugaltu egiten dira

Orain arte kontratazio mugagabea sustatzeko kontratua sinatzeko gai ziren langile multzoen zerrenda zabaldu egiten da. (Kontratu honen adierazgarriak behinena zera da: bidegabeko kaleratzearen kalte-ordainen kopurua zerbitzu urte bakoitzeko 33 eguneko soldata dela, 24 hilabeteko soldataren topearekin, 45 eguneko 42 hilabeteko topearekin izan beharrean).

Aurrerantzean, kontratu hori sinatzeko gai honako langile multzook izango dira:

a) Langabezian dauden pertsonak eta bide batez:

* 16tik 30ra urte bitartekoak diren gazteak (lehen 18tik 29ra bitartekoak);

* emakumezko langabetuak direnak, doi bat ordezkaturik gabe dauden lanbidetan;

* 45 urtetik gorakoak direnak;

* lan eske ari direla 6 hilabete bete dutenak (lehen, urtebete);

* pertsona elbarriak.

b) Kontratu berria sinatzeko garaian lanean ari direnak enpresa berean iraupen mugatu-

BEREZIA: Lan erreforma: desarauketa areagotzen...

ko edo aldi baterako kontratu baten bidez, heziketa-kontratuak barne, 2003ko abenduaren 31 baino lehenago sinatutakoa.

Gainera, kontratu hau sinatu ahal izateko orain arte eskatzen zen enpresak iraungitu ez izana kontraturik arrazoi objektibogatik, eta kaleratze kolektiborik burutu ez izana, aurreko hamabi hilabeteetan. Hemendik aurrera, epe hori sei hilabetetan geratzen da.

3. Hemendik aurrera sinatzen diren zenbait aldi baterako kontratu iraungitzeagatik kalte-ordaina ezartzen da

Zerbitzu urte bakoitzeko 8 eguneko soldatako kalteordaina ezartzen da, aldi baterako kontratuak iraungitzeagatik, bitarteko kontratua, txertaketa kontratua eta heziketa kontratuak (praktiketako eta prestakuntzarako) izan ezik.

Ezartzen den kalte ordain hau ez da aplikatzen errege dekretu-legea indarrean jarri baino lehen, hau da, urte honen martxoaren 5a baino lehen, sinatutako kontratuak iraungitzeagatik, noiznahi iraungitzen dirala. Delako kalteordaina aplikatzen zaie, beraz, aipatutako martxoaren 5tik aurrera sinatutako kontratuei.

4. Behin-behineko kontratua malgotu egiten da

Hitzarmen kolektiboaren bidez ezarri daitekeen behin-behineko kontratuaren gehieneko iraunaldia jaitsi egiten da 13,5 hilabetetik 12ra; baina, bestalde, legeak espreski ezartzen du gehieneko iraunaldi horretarainoko luzapen bat izaten ahal dela, hasiera batean iraunaldi motzago batetarako sinatu izanez gero.

5. Prestakuntzarako kontratua sinatu ahal izateko adin-mugarentzako salbuespenak ugaltu egiten dira

Orain arte, kontratua soilik sinatzen ahal zen 16 urtetik gorako eta 21tik beherako langileekin. Adin muga hau soilik ez zen aplikagarri elbarritutako pertsonekin sinatutako kontratuen

kasuan. Orain, salbuespenak honako multzo hauek hartzen ditu:

- langabezian dauden elbarrituriko pertsonak;
- atzerritarrak, laneko baimenaren iraunaldiaren lehenengoko bi urteetan;
- langabezian hiru urte baino gehiago eman dutenak;
- langabezian dauden pertsona gizarte bazterkeria nozitzen dutenak;
- lantegi-eskola, lanbide-etxe eta enplegu-lantegietan hasten diren langabetuak.

Kontratu-mota honek ez du sortzen langabezi prestazioetarako eskubiderik.


6. Aldi baterako kontratu mota berri bat ezartzen da herri administrazioan: txertaketa kontratua

Aldi baterako kontratua egiteko aukera berria sortzen da, "herri-administrazio batek enplegu galdatzaile bat kontratatzen duenean, eta txertaketa kontratu horren helburua interes orokorreko edo sozialeko obra edo zerbitzuren bat, bere eskumenen barruan dagoena, burutzea denean, lan esperientzia lortzeko eta langabetu parte hartzailearen kontratatua izateko gaitasuna hobetzeko bide gisa".

7. Enpresa nagusiaren erantzukizuna azpikontratazioko kasuetan eta informazioko eskubideak azpikontratazioko kasuetan

Enpresa nagusiaren erantzukizuna enpresa kontratistaren eginbideengatik zabaldu egiten da enpresa azpikontratistaren eginbideengana ere, hurrenez hurreneko azpikontratazioa barruan hartuaz.

Informazio eskubideak ezartzen dira azpikontratazio kasuetarako, bai enpresa kontratista eta azpikontratatetako langileen aldera, bai enpresa nagusiko zein enpresa azpikontratatetako langileen ordezkarien aldera ere.



8. Kaleratze objektiborako arrazoi berri bat ezartzen da

Kontratua iraungitzeko arrazoi objektibo berri bat ezartzen da, noiz eta, "kontratu mugagabeen kasuan, diru hornidura finko baten bitartez barik aurrekontuetako urterik urteko diru ezarpenen bitartez finantzaturiko plan eta egitasmoko publikoak burutzeko sinatu izan direnean, aurrekontuetako diru ezarpena nahikoa ez denean delako lanpostua mantentzeko".

9. Indargabetu egiten da lan egiteko gehieneko adin-mugari buruzko arau atala

Indargabetu egiten da Langileen Estatuaren oraingo hamargarren atal gehigarria, zeinak onztat ematen baitu derrigorrezko erretiroa erabili ahal izatea enplegu politika bat burutzeko bitarteko gisa, eta zilegitzat jotzen baitu negoziazio kolektiboan erretiroko adinak ituntzea.

10. Hobariak ugaltu egiten zaizkie enpresei

Hainbat eta hainbat aukera ezartzen dira enpresek Gizarte Segurantzari kotizazio gutxiago ordain diezaioten.

B) Erreformatzen balorapena

Gobernu espainiarrak onetsi egin du lan-erreforma delakoa Errege Dekretu-Lege baten bitartez. Dagokion balorapena negatiboa da, bai burutu izan den eragatik eta baita edukien aldetik ere.

Lehenengo eta behin, azpimarratzekoa da Gobernuak ezohiko kasuetarako bidea hautatu duela, alegia, errege dekretu-legearena.

Araugintza mota hau (parlamentuan lege batek izan ohi duen arauzko tramiteari itzuri egiten diona), bakarrik premia haundiko kasuetarako pentsaturiko zerbait da. Noski, Gobernuak hartutako ezein ere neurrik ez du galdegiten horrelako premiarik; beraz, ezohizko araugintza baten iruzurkeriazko erabilpen baten aurrean gaude.

Baina arazoa ez dago soilik formaren aldetik, baizik eta funtsaren aldetik ere. Onartu den lan-erreformak aurrera egiten du eskubide laboralen murrizketaren bidean, eta lan-lokatasun hainbat moldetakoa sustatzearenean.

Argi dago gaur egungo laneko arazoak zein diren: Europako Batasuneko batez bestekoa baino lanagabezia tasa handiago batekin batera, tenporaltasun tasa hain haundia, eta hainbat lanpostutan gertatzen den abusu enpresarialeko egoera. Hortaz, hartu beharreko neurriak dira, zeintzuk ere enplegua sortzea eta tenporaltasuna eta kolokatasun laborala murriztea lortuko baitute.

Hartutako neurriak, berriz, malgutasun laborala areagotzen dute, aldi baterako kontratatzeko aukerak ugaltzen dituzte, eta posible egiten dute orain arte baino pertsona gehiagori aplikatu ahal izatea bidegabeko kaleratze merkeagoa. Baita ere, enplegua sortzea erraztu beharrean, aukeratutako bidea bestelakoa izan da: enpresei hoberi garrantzitsu eta justifikaziorik gabekoak gizarte segurantzako kotizazioetan eman zaizkie.

Malgutasun laborala areagotu egiten delako adierazgarri nabarmenena, denbora partzialeko kontratuetan ageri da, ezabatu egiten baita orain arte zegoen lanaldiaren gehieneko muga, denbora osoko lanaldiaren % 77an kokaturik zegoena. Lan-kontratu mota honetan malgutu egiten da lanaldiaren ordu banaketa, eta beronen konputoa kontratatutako lanordu guztiak kontuan hartuta egiten da, orduen banaketa gora-behera. Aldizkako kontratu finkoa, berriz, desagertu egiten da denbora partzialeko kontratu era bat izatera pasatuaz.

Hemendik aurrera sinatzen diren aldi baterako kontratu zenbaiti zortzi eguneko soldatako kalteordaina ezartzea amaieran, nahikoa ez den neurri bat da (enpresariak onartzeko prest zeudenaren ere azpitik geratzen dena), eta ez da eraginkorra enpleguan denboraltasuna murrizte-

BEREZIA: Lan erreforma: desarauketa areagotzen...

ko (hilabeteko kontratu batek 0,66 eguneko soldatako kalteordaina darama).

Aitzitik, aldi baterako kontratuak egiteko aukera berriak ematen dira, aldi baterako kontratu mota berri bat ezarriaz, txertaketa kontratua deritzana, herri administraziora mugatutakoa. Era berean, prestakuntzarako kontratua egiten ahal zaien langile-multzoak ugaltu egiten dira, hain zuzen langabeziako babesik ez duen kontratu-mota.

Kontratu mugagabeen eremuan, erraztu egiten da bidegabeko kaleratze kasuan kalte-ordain murriztagoa dutenen erabilpena, lan egindako urteko 33 eguneko soldatakoa 24 hilabeteko topearekin, kalte-ordain altuagoa dutenen aldean, urteko 45 egunekoarena 42 hilabeteko topearekin. Horretarako zabaldu egiten da kontratu mota hori egin dakiekeen kolektiboen zerrenda, eta, batez ere, ugaltu egiten dira hobariak kontratu mota horrentzat, bai zenbatekoaren aldetik, baita onuradun gertatzen diren multzoen aldetik ere.

Azkenik, Gizarte Segurantzako kotizazioetan hobariak ugaltu egin dira. Hainbat eratara murrizten dira Gizarte Segurantzako kotizazioak. Eta honela, Gizarte Segurantzako baliabideen jaitsiera bidean aurrera egiten da, gerogarrenean prestazioak ere murrizteko beharra azalduaz.

Politika murriztaile honekin bat eginez, onartutako erreformak kendu egiten du negoziazio kolektiboaren bitartez lanetik derrigor erretiratu beharreko adinak ezarri ahal izateko legezko ahalbidea. Gobernuaren erabaki honek ez du zer ikusirik batere hartutako gainontzeko erabakiekin. Izatekotan, gehiago dirudi lehendabiziko ohar bat pentsio kontuan aldaketak egiteari zeintzu asmorekin ekingo dion aditzera ematen duena, gai horri buruz Gobernuak iragarri baitu erretiroa atzeratzeko pizgarriak ezartzeko asmoa duela.

Onartutako erreforma aurrera-pauso bat gehiago da lan desarauketaren eta eskubideak murriztearen bidean. Erabiltzen ari dan bidea da zein ere deitu baikenezake "etengabeko erreforma prozesua". Alabaina, etengabekoak dira gizarte-babesak eta lan araudiak jasaten ari diren aldaketak. Prozesu honetan, epe bakoitzean indarrean dagoen legeria helmugako geltokirik ez duen trenbide bateko tarteko geltoki bat, jakinik hala ere trenean bidaiari goazenok geltokitik geltokira doi bat okerrago egongo garela.

Horren adibide dira Gobernuak egin dituen adierazpenak, esan baitu erreforma honi beste erreforma batzuk gaineratu behar dizkiola. Aipatu diren gaien artean azpimarratu daiteke honako hauek daudela arriskuan:

- geroko pentsioen kobertura;
- langabeziako prestazioen kobertura;
- Langileen Estatutuaren 84. artikulua. Eragotzi egiteko asmoa bide dago, estatu mailako sektoreko hitzarmenik egonez gero, beheragoko lurraldeko sektoreko konbeniorik negoziatu ahal izatea;
- Hitzarmen kolektiboan aplikagarritasunaren iraupena, behin agortu eta gero itundutako hitzarmenaren iraunaldia (ultraeragingarritasuna delakoa).

Testuinguru honetan, atentzioa ematen du CCOO eta UGTk agertu duten portaera. Jarrera koherenterik gabe, euren helburuak jaristeko planteamendu oldarkorrik gabe, negoziazio ariketaren beraren "berezko" onuraz teorizatu egin izan dute, gizartearen desmobilizazio erabateko bati toki emanaz. Euren makaltasunak ez zuen begitandu eragiten gauza onik atera ahal izango zenik murgildurik zeuden elkarriketa prozesu honetatik, gainontzeko sindikatu errepresentatiboek mahaian lekua ukatu eta gero.